

TERESA LISIEUX-KOIA
"LORETXO ZURI BATEN ESENTZIA"
GRAFOLOGIAREN IKUSPEGITIK

Teresa Lisieux-koaren idatzietan espiritualtasuna ("i"ren puntuak eta azentuak oso altu kokatuak, bukle puztuak letren goiko aldean, puntan bukatutako gangorak, hitzen azkenak gorantz...) joera erlijioso eta mistiko sakonak, intuizioa eta goxotasuna indar handiz azaltzen dira.

Benetan txikiak diren xehetasun eta gertakariei neurri gabeko garrantzia ematen zien emakume honek. Ingurunea idealizatzeke joera zuen, zintzoa, garbia eta duina zena bilatuz. Asmo poetiko eta estetikoetan luzaroan jostatuz, ametsen mundu irrealan bizi zen, oso subjektiboki, mistizismo era batean akaso, utopia ukitzen.

Oso idazkera harmonikoa da, hitzen artean espazio gutxi dagoen arren. Hausnarketa luzeetan jarduten zuen, pentsamendua goitik zerabilen, energia espiritual sendoak eraginda, lumarekin uzten duen presio fin baina tinkoa testigu. Hala ere, espiritualtasun eta idealismo honek ez zituen praktikotasuna eta egunerokotasuna ezabatzen, bi eremuak bat eginik nortasun bitxi bat osotu baizik (letren beheko gunea oso luzea da erdiko guncarekin konparatuz).

Teresaren "de" letra puztu eta garatuak (goiko buklea obalua baino askoz ere zabalagoa da eta ez du oinarri-lerroa ukitzen) dedukzioa gehi intuizioa erabiltzen zuen adimena, pentsamendua

D. 46. 5. 8

Janvier 1895

Jésus
 Histoire printanière d'une petite fleur blanche
 écrite par elle-même et dédiée à la Bienheureuse Marie ~~de la Vierge~~
 Agnès de Jésus

C'est à vous, ma Mère chérie, à vous qui êtes une fois ma Mère que
 je viens confier l'histoire de mon âme... Le jour où vous m'avez demandée de
 faire, il me semblait que cela dissipait mon cœur en l'occupant de lui-même
 mais depuis Jésus m'a fait sentir qu'en dormant simplement je lui saisis quelques
 moments je ne sais faire qu'une seule chose: commencer à chanter ce que
 vous aviez éternellement dit: Misericordias Domini Insuper!!

Avant de prendre la plume je me suis agenouillée devant la statue de
 Marie, celle qui nous a donné tant de preuves de maternelles préférences

Teresaren A Eskuizkriburuaren hasiera, neurri txikiagoan.

gehi ekintza, ingurunetik xurgatu eta irakasteko gaitasun ezin ho-
 bea erakusten digu. Etorkizunarekiko kimeren sortzailea izanda
 ere, herrimaren influentzia beti present zuen (ezkereranzko "d"
 letrak eta maiuskulak; idazkera aurrerakorra). Bihozkadaka eta
 presaka batean erabakiak mordoxka hartzen zituen.

Idazkera apaindua, marraztua eta zaindua izanik, orduan
 egotea, pentsamenduak argi adieraztea eta betebeharrak kalita-
 te handiz burutzeari ematen zion garrantzia nabari da.

Puntuaketa zehatza (puntu, "r"ren makila eta azentuak) eta
 orriaren antolaketa orokorra oso txukuna denez, bere memoria
 ikaragarritik ezer gutxik aldegingo zion. Letren arteko loturak
 luzera berberekoak izateak, ordena, metodoa, eta superni
 (kontzientzia) zorrotza zituela erakusten du.

Hitzen hasiera laburrak, "t" letrak mugimendu bakar batekin irudikatu eta askotan bi "t"ren makilak elkartzeak, sintesia, ahaleginaren arrazionalisazioa, ekoizpena eta jarrera iraunkorraren seinale dira.

Bitxikeria bat ere agertzen da Teresaren grafian: Orriaren eskuineko bazterkian espazioa bortxatzea, azeri-buztan izenez ezagutzen den fenomeno. Denbora eta baliabideei etekinik gehiena ataratzeko, bere buruari asko eskatzen eta jarrera edo ideia bati tinko eta burugogortasunez eusten inork baino hobeto zekien. Esandakoa egia izanik ere, idazkera honetan, uhin ereduak dira nagusi, mugimendu sinpletu eta landuak, ez angeluak eta ez txirikordak, oztopoei malgutasunez aurre egiteko ohitura zuela baieztatuz.

Erdiko gunea oso txikia izatean perfektzioaren ezaugarri hau berrindartuta gelditzen da. Jakinminak zuzenduta burmuina intelektualki jansteko grina, arretaz lan egiteko dohaja eta nolabait obsesionatzeko joera ere bazuela antzematen da.

Erdiko gunearen txikitasun honetan oso neurri irregularra hartzen dute bere letrek, grafologian oso ezaguna den esaldia gogoratuz: "Zenbat eta desberdintasunak txikiagoak izan are eta sentiberatasun, hunkiberatasun eta harmen gaitasun gehiago izaten du pertsonak". Barrutik urduria eta emotiboa zen Teresa, eta bere duda-mudak harmonia kutsuarekin kanporatzen abila zen (azkenak xuabeki bideratzen ditu).

Goi eta beheko gunek aztertuz gero, erdiko gunearikiko distantzia handia dagoela begibistan dago. Klages alemaniar grafologoak sakonki ikertutako zeinu honetan, nortasun sutsua, geldirik egon ezinekoa, bere burua gainditzea bilatzen zuena eta ekimenezalea nabari da (baita "t" makilaren marra horizontal aurreratuetan ere).

Maiuskulak handiak dira (7 mm. arterakoak) eta gainaltxatutako letra batzuk ere badaude ("p" letra kasu). Bere buruaren balioaren kontzientzia zuen eta buruan zebilzkion ideiak gau-

za guztien gainetik defendatzeko joera zeukan, urguilu antzeko batekin.

Teresaren idazkera bertikala da orohar: Burua da bere bizi-modua zuzentzen zuena, epaiketetan independentziarekin jotuz eta erdiko puntua bilatzen saiatuz. Bertikaltasunak sailkapen orokorra izanik ere, makurdurak hogeitaz gradura arteko aldaketak ditu ezker eta eskuineko aldera, idazkera oskilakor bilakatuz. Talentu psikologikoa, besteen sentimentu eta animoen ulermena... Makurduraren mugikortasun hau giza arima ulertzeko gai diren pertsonengan gertatzen da.

Laburbilduz, nabarduraz betetako idazkera da; honek, lumen hizitasunean hibratu egiten duela dirudi. Neurri, makurdura eta espazioetan ezberdintasunak daude, baina osotasuna erregular mantentzen da. Emozio moderatu ugari eta era askotakoak sentitzeko gaitasunaren jabe zen Teresa.

"V" eta "N" letra maiuskula eta minuskulek hurrengo letrak estaltzen dituzte, oiloaren hegoaren forma hartuz: Aldamenekoak eta pertsona ahulak babesteko jarrera isladatuko luke. "M" letra maiuskula eta minuskulak beherakorrak izaneran, behaketa eta jendearen azalean sartzeko erraztasuna argi gelditzen dira.

Letratik letrarako tartean beste letra batentzako tokia dago, burmuin zabaleko pertsona emankorren ezaugarri. Arazo konplexuak gogoz hartzen zituen eta aztertzen hasten zen gaian buru-belarri, azkeneko muturreraino abiatuko zen.

Pasarte batzuetan eskuineranzko makurdurarekin nabarmendu zituen aipagarriak iruditu zitzaizkion esaldiak: Bibliako aipuak edo pertsona esanguratsuren batek ahoskatutako hitzak dira. Berritri ere agertzen da Teresaren idazkera xehetasun zalea.

77. orrialdean, 1890.eko irailaren 8an "profesioaren egunean", bihotzean zeraman notatxoa dago. Eskuineranzko makurdurarekin idatzia dago, lerrorik marratu gabe, gora eta behera dantzaten dira hitzak. Une horretan sentimenduek gainezka

egiten zioten, aldi berean alai eta zalantzaz beteaz aurkitzen zen.

Teresak orri guztiak bere letra txikiz josten ditu: Zuriune gutxi uztea ekonomizatzeko era bat da eta oso pertsona komunikakorra zela ere egia da.

Naturalki forma kurboak dituzten letra batzuk angeluan egiten ditu Teresak, "M" maiuskula-adibidez (minuskula ere bai batzuetan). Honi, gorantz doazen "r" makilak gehitzen badizkiogu, nahi zuenean kritika eta oposaketa ateratzen bazekiela ziurta daiteke, beti ere leuntasuna medio.

Azken batean, laztantzen duen idazkera da Lisieux-ko Teresarena. Grazia handiz eginiko kiribilo, forma luze eta neurtuek enkantu berezia lurrintzen zuela erakusten dute. Baikortasuna eta umorearekin, gizalegetsu jokatzen zuen, senitarteko eta talde txikietako harremanetan askoz gustorago eta naturalago sentitzen zelarik.

Irene Ibarra